

## **MOZIO ARRUNTA, HERRERA ETA OLETAKO TRENBIDEPEKO PASABIDEAK DIRELA ETA**

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Herrerako eta Oletako trenbidepeko pasabideak direla eta.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Herrera auzoan trenbide azpian dagoen tunela pasabide garrantzitsua da herritarrentzat. Oso erabilia da auzune horretan garraio azpiegitura garrantzitsuak daudelako (satorra, Adifen trena, hainbat autobus linea...), eta lotura eginkizun funtsezkoa duelako Bidebieta, Trintxerpe edota Altzako goiko auzoekin ere lotura egiteko. Horregatik, hain zuzen ere, pasabide jendetsua da. Hain jendetsua ez izan arren, Oletako trenbidepeko pasabidea ere auzo horretako biztanleentzako pasabide naturala eta eskuragarria da, bai bidegorria edota Donostiako eta Oarsoaldeko autobus geltokietara iristeko, eta lotura egiteko Trintxerperekin eta Antxorekin.

Aipatu azpiegiturek, ordea, ez dituzte betetzen irisgarritasun baldintzak, ezta segurtasun eta higieine baldintza oinarritzkoenak ere. Horregatik, herreratarren, oletarren eta, oro har, altzatarren aspaldiko eskaria da bi pasabide horiek moldatu eta birgaitzea.

Hain zuzen ere, Altzan dauden puntu kritikoak ezabatzeko egitasmo bat abiatu du Donostiako Udalaren Berdintasun Sailak, eta bi pasabide horiek puntu kritikoetan kritikoetan izanik, erabateko lehentasuna eman zaio horiei irtenbide bat proposatzeari.

Edonola, Espainiar Estatuaren mendeko ADIF erakundearena da bi pasabide horiek birgaitzeko ardura.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

### **MOZIOA ARRUNTA**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Espainiako Gobernuari eta ADIF erakundeari Herrerako eta Oletako trenbidepeko pasabideetan beharrezko hobekuntzak egiteko, pasabide horiek guztiz irisgarri, garbi eta seguru bihurtzeko.

Donostian, 2020ko irailaren 4an

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldearen bozeramaile

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia [eh\\_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus)

---